

## da galegozko liburu baten ia 45.000 ale saltzea?

Ez, baina kopuru hori ulertezina da konplize sare bat aipatu gabe. Irakasleak dira konplize horiek. Liburuari kalitatezko deritzote, eta baita erabilgarri ere, haur askok baitauka alzheimerrek jota-ko norbait inguruan.

## Idazlea izateaz gain, Galaxia argitaletzeko zuzendaria ere bazara. Nola uztartzen dituzu bi lanak?

Mahaiaren bi aldeetan nago, eta bitasu horretan bizitzea lortzen dut. Hala ere, larritu egiten naiz oraindik ere norbaiti esan behar diodanean bere lana ez dugula argitaratu. Eta, nire kalkuluen arabera, jasotzen ditugun lanen %85 ez ditugu argitaratzen.

Hamar urte daramatzat editore lanetan. Ordu arte irakaslea eta idazlea nintzen. Orain, editorea eta idazlea naiz. Editore lana onartu nuenean, neure buruari agindu nion idazten segitzea.

## Eta nola dago gaur egun letra galegoen sistema?

Oso osasuntsu, indartsu. Idazle oso onak ditugu, genero eta adin guztietan. Nazioarteko onospena ere badugu. Ez daukagu, baina, maila bereko herri sarea eta administrazioa. Galizian, biztanleen %98k ulertzen dute galegoa, baina, duela bi urtetik hona, galego hiztunak ez gara populazioaren erdira iristen. Nola egiten ote dute lo lasai Xuntako arduradunek? Irakurketaren aldeko laguntzak ezerezean utzi dituzte, besteak beste. Eta gure ofizioak ez dauka zentzurik irakurlerik gabe.

Administrazioak galegoak babesteko itxurak egiten ditu, baina XV. mendetik abian dagoen desprestigioaren sokatik tiraka ari dira. Garai batean, galego hiztuna herrixkakoa izatearekin lotzen zen, herrixketan eutsi zitzaiolako hizkuntzari Francoren urteetan. Orain, galego hiztuna izatea eta norbere umeak galegoz hezteak irakasle izatearekin edota BNG-koa izatearekin lotzen dute. Ez dute lotzen pertsona arrunt izatearekin. Administrazio konplize bat behar dugu hori iraultzeko. Gure hizkuntza eta kultura sustatzeko basterik ez diogu eskatzen.

## Galaxia argitaletxea ere osasuntsu al dago? Erraldoia da Galiziako gainerako ondoan.

Aurten 103 nobedade argitaratuko ditugu guztira, genero eta estilo guztietan. Hizkuntza handiek daukatena galegoz ere behar dugu. Galegoz dena da beharrezko. Guk guri dagokiguna egingo dugu: liburu onak idatzi eta argitaratu. Administrazioek ere egin dezatela dagokiena.

# Basoan barneratzea

## Peru Iparragirre

**K**alean da dagoeneko Alejandra Pizarnik (Avellaneda, Argentina, 1936 - Buenos Aires, 1972) poetari eskainitako kaiera, Susa argitaletxearen Munduko Poesia Kaiarak sailleko 28. zenbakia. Lehenago ere irakurri ahal izan ditugu argentinarraren testu batzuk euskaraz. Kaiar honetako poemak itzuli eta apaillatu dituen Asier Sarasolak itzuli zuen poema bat *Hitzen Uberan* atarirako, 2010ean: kaieraren jasota dagoen *Esnaera*; Danele Sarriugartek Pizarnik egunerokoaren pasarte batzuk itzuli zituen *Elearazi* atarirako 2014ean.

Aurten, bestalde, *Idatz & Mintz* aldizkariaren 63. zenbakian ikusi dute argia Xabier Bovedak itzultitako hamabost poemek, zeinetarikoz batzuk kaieraren ere jasota dauden, Sarasolaren itzulpenen. Ariketa interesgarria da jatorriz-

koa eta bi itzulpenak konparatzea, Pizarnik zorroztasun iradokitzailearen interpretazio ezberdinen bidez hizkuntzen zokotan eta esanahien ertzetan barneratzea. Itzultzaileen hautuak konparatiboki balioesteko parada ematen du egoerak, laugarren bertsioko bat sortzeko. Sara-



## 'Poesia kaiera'

**Idazlea:** Alejandra Pizarnik.  
**Itzultzailea:** Asier Sarasola.  
**Argitaletxea:** Susa.

# Argi ibili!

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

### Imanol Mercero

**H**ona hemen Txanogorritxoren ipuinari egindako ekarpen bat. Zinemazaleek modan jarri duten hitza erabiliz, *prequel* bat da *Gorri!*, hau da, aurrez plazaratutako obra baten (*Txanogorritxo*) aurrekariak arakatzen dituena, istorioa hasi baino lehenagoko gertakariak proposatuta.

Eta, lagunok, hau albiste zoragarria da.

Nik uste munduan mordoxka garelako Txanogorritxo maite dugunak. Ausartuko nintzateke esatera guzti-guztiok maite dugula, maitatzea eta hunkitua izatea pareko direla onartzen badidazue.

Beharrik, ipuin honekiko zale-tasun unibertsala aitortuta ere,

historikoki, bi multzo handitan banatzen ahal zen zalegoa: Grimm anaieek ospetsu egin zuten amaiera onaren zaleak batean, eta Perraulten amaiera gordinaren (...eta jan zuen!) zaleak bestean. Bi aldeetakoek ematen dituzte argudio burutsuak euren hautuaren alde, hala bizitzaren gogorra ipuinekin



## 'Gorri!'

**Idazlea:** Alice Briere-Haquet.  
**Ilustratzailea:** Elise Carpentier.  
**Itzultzailea:** Jean Louis Davant.  
**Argitaletxea:** Ikas.

solaren itzulpena leiala eta aberatsa iruditu zait, nahiz eta hautu batzuk zalantzagarririk egin zaizkidan alderatzean.

Antologia honetan osorik dakar itzultzaileak *Dianaren arbola* liburua, Pizarnik 1962an Parisen idatzi zuena, eta horregatik bakarrik, behar bada, merezi du liburua eskuetan hartzea. Beste aipamen bat egitearren, liburu horretako poema guztiak ere itzuli ditu Bovedak *Idatz & Mintz* aldizkariako. Hala, Pizarnik obran berebiziko garrantzia duen lanaren bi bertsioko daukagu euskaraz irakurgai.

MPK sailaren ohiko maketa-zioaren ondorioz, bata bestearen segidan daude pilatuta poemak. Kosta egiten da irakurtzerakoan poema bakoitzari behar duen artea ematea, bisualki bada ere. Zorionez, poemek arreta eskatzen eta bereganatzen dute eta haietara berriro itzuli behar da irakurlea eta hitzetan barneratu, baso batean nola. Edizioaren mugak muga, beti da harrigarria Munduko Poesia Kaiaren 60 orrialdeetan zenbat poema, zenbat poesia, kabitu daitekeen.

Kasu honetan, behintzat, agerikoa da Pizarnik obra oparoaren hautaketa esanguratsua dela bilduma.

Jatorrizkoa jo behar izan gabe edo itzulpenak alderatzen ibili behar izan gabe da gozagarri antologia hau, itzulpenak geruza bat gehiago ematen baitio Pizarnik poesiari, kontrasteen -are, kontraesanen - poetikaren elementu gehigarri bilakatu. Ez da kasualitatea kaieraren jasota dagoen azken poeman -*Gau honetan, mundu honetan*- idazketari eta hizkuntzari berari erreferentzia egitea poetak. Pizarnik, bera ere hainbat poetaren itzultzaile, kontziente baitzen hitzen garrantziaz eta hutsaltasunaz, hizkuntzaren mugez eta aukerez.

Saihetsezina da hainbat sinbolo edo irudi errepikatuta ikustea poemotan zehar, Pizarnik obran behin eta berriro agertzen direnak. Txoriat eta kaiolak, esaterako, edo odolaren isiltasuna, besteak beste. Dena dela, honela dio poetak *Ispiluaren bideak* poemaren XIII. atalean: «*Eguzkia nahiz ilargia eta izarra esanda ere, gertatzen zaizkidan kontuez ari naiz.*» Hain da indartsua bere *ni* poetikoa, irakurlea bere baitan hartzen duela, *ni* bakarra balego legez: poetarena, eta mundua, egiazko mundua, bere poemetako: txoriaten kaiolak eta kaiolentzako txoriaten erakusten dituen, ura esanez edaten duena.

gazitgatzearen aldekoek, nola amaiera onak haurren psikologia erakartu garatzeko beharrezko dela diotenek. Ez da hau lekua eztabaidaren mamia xehe agertzeko; sakondu nahi duenak hor dauka B. Bettelheim ospetsuak Perraulten ipuinez egindako azterketa psikoanalitiko -litzentzia afera gisa aztertzen duelarik otsoaren portaera-, zuel S. Cashdan psikologoaren *The Witch Must Die* ikerketa, gaiari begirada zabalago bat eskaintzen diona eta, besteak beste, ipuinaren motibazio nagusia sabelkoikerian ezartzen duena.

Berriki (?), baina (beti dago baina bat azalpenetan), kapusai gorriko neskatzaileen kontu honetan hirugarren korronte bat sortu zen, duela mende erdi G. Rodari kapitain-pilotu izan zuen literatur-tsunami batek eragindakoa, eta -besteak beste- Txanogorritxoren bertsioko kontaezinak eratorri zituen. Demagun, emaitza ospetsuena B. Munari-ren *Txano Gorri, Berde, Hori, Urdin eta Zuri* izan zela.

Hirugarren korronte batek bien zama pedagogikoa arintzen

saiatzen diren aukera izan ohi da. Diotenez, oroz gaindi libertinendua eskaini behar zaie haurrei, izua neurritz erabilia, eta horregatik egokiagoak dira aldaera jostagarriagoak dituzten ipuinak, otso onberak -zozoak, edota inozoak ez badira- ia derrigorrez agerrarazten dituztenak.

Gatozen harira. Guzti honetan non kokatzen da *Gorri!*? Dударrik gabe, hirugarren korronte Rodari-zalean, kontakizunaren ikuspegi berria eskaintzen digulako, sarreran esan bezala (*prequel...*).

Izan, *Gorri!* barre eragilea da, simplea, egitura errepikakorrean gag sorta bat eskaintzen duena. Argi ibili, halere, haurrari irakurtzeko; ahotsa jostaketara prestatu, darabilen umorea ez baita txepela. Ironia dario, alerik ale, amaierako azken ateraldira arte; zeinak otsoaren atzaparrak erakusten baitzizkigu, adimen bihurriko kontalari batek egingo lukeen eran.

Ilustrazioa? Gorritz markatutako zuri-beltzean, serigrafia dirudien teknikarekin. Apropos eta bikain, tonuan zein mezua zabalteko maneran.